

GRANADAKO EMAKUMEEN ASANBLADA

Granadako Emakumeen Asanbladako (GEA) kideek *Desadostasunak. Feminismoaren mutazioak* izeneko mintegian emandako hitzaldian, beren taldearen 30 urteko historiaren atzerabegirakoa eskaini zuten eta espainiar Estatuko mugimendu feministaren baitatik beraiek bizitako esperientzia eta beren lana bistara jartzeko aurrera eramandako borroka azaldu zituzten.

Biltzarreko partaideen iritzian, 60ko hamarkadako planteamenduetara atzera egitea lagungarria gerta daiteke; izan ere, planteamendu horiek, gizarte mugimendu askoren erreferentziatzat eta 70ko hamarkadan gertatuko zenaren oinarritzat hartuko baitziren. Hamarkada horretan, *gizarte mugimendu berriak* izendapena jaso dutenak sortu ziren (ekologisten mugimendua, feministen mugimendua); eta horien bidez, "ezkerreko alderdi zaharrari" bestelako sentsibilitate bat eta subjektibitatea gaineratu zioten. 1975. urtea espainiar Estatuko feminismoaren abiapuntua izan zen, NBEk *Emakumearen Nazioarteko Eguna* izendatu zuen urte hori, errepresio frankistaren intentsitatea gutxitzea emana zen eta beste herrialdeetako emakume taldeen berri izateko aukerak zabaldu ziren.



1974 eta 1975 bitartean, Granadan emakumeen bilkurak ugartuz joan ziren eta halakoetan elkartzen ziren, bai ezkerreko alderdi politikoetan militatzen zutenak, bai frankismoaren aurkako taldeetako kideak, baita, inolako afiliaziorik ez zuten emakumeak ere. Unibertsitatea bilakatu zen frankismoaren aurkako eztabaidak egiteko gunea eta hitzaldian azaldu dutenez, "une hartan sortu ziren *Emakume Profesionalen Elkarte*a eta *Emakumearen arazoak aztertzeko Unibertsitate Elkarte*a; azken elkarte hori aitzindaritzat, hilabete batzuk geroago eratuko zen *Emakumeen Elkarte*aren".

Urte horretan bertan, Madrilen ospatu ziren Mugimendu Feministaren I. Jardunaldiak. Handik urte batera, Sevillan *Emakumearen Elkarte Demokratikoa* sortu zuten eta horrekin eratu zen, Andaluziako eremua hartzen zuen lehen erakunde feminista, subkultura aparteko baten biktima den Andaluziako emakumearen berariazko arazoetaz arduratzeko helburuarekin.

1977an GEA Espainiar Estatuko Erakunde Feministen Koordinadoran sartu zen. Koordinadora horren bidez, mugimenduari izaera bateratua emango zitzaion. Mugimendu feministaren ekimen eta planteamenduetan eragin handia izan zuten lehenengo hauteskunde demokratikoek eta ordura arte beren lana isilpean burutzen zuten alderdi politikoak legeztatzen joateak. 1978an onartu egin zen Konstituzioa, bere izaera matxista eta demokrazia gabeziagatik feministek gogor kritikatu zutena, han ez baitziren aintzat hartzen, besteak beste, abortatzeko eta dibortziazeko eskubideak. Errebindikazio horiek 1979ko bigarren hauteskunde orokorretan, beste behin ere, aldarrikatu behar izan ziren.

Hortik gutxira hasiko zen trantsizio prozesua hitzarmen eta kontsensuetan oinarritu zen eta horien bidez, gizarte mugimenduak moteltzea eta garai hartan bizi zen gatazka sozial zein politikoa arintzea lortu zen. 80ko hamarkada hasiera arte, gizarte mugimenduek geldione bat izan zuten beren ekintzetan. Hizketakideek adierazi dutenez, "ezkerreko alderdiak bideratu zuen aurrekontua hain murrizta izateak ilusioak desegin zituen. Mugimendu feministan eragin zuzena izan zuen horrek; izan ere, beren planteamenduak baztertuak izatea jasan behar izan zuten, prozesu demokratikoari aurrera egiten laguntzea zela eta arrazoia". Kontsensuaren ondorio bat izan zen iraganarekin adiskidetzea; alderdi politikoaren sistema eratu nahi zen baina aldi berean, erakunde eta gai batzuk ez ziren auzitan jarriko: monarkia, ejertzitua eta lurraldearen batasuna.

70eko hamarkadan GEA izaera autonomodun eta batasun zentzu handia zuen kolektiboa zen eta klase pertsonalitate trinkoa agertzen zuen. Feminismoari buruz zuten ikuspegia globala, muturrekoa eta errebindikatiboa zen. Asanblada bidezko funtzionamendua zuen eta ez zuten ez kargu organikorik ez hierarkiarik onartzen. 70ko hamarkada aldi teorikoa izan zen eta era berean, ideia horiek zabaltzekoa; abortuaren eta dibortzioaren aldeko kanpaina ikusgarriek, esaterako, eragin handia izan zuten Granada hirian. Planteatu zituzten hainbat galdera identitatearen auziari buruzkoak ziren; hau da, emakume gisa, identitate propioaz jabetzea eta generoagatik jasan beharreko zapalkuntza eta bereizkeriari buruz hausnartzea. Azaldu zuten, "70ko hamarkada erabakigarria izan zen gure planteamenduek aurrerago izango zuten bilakaerarentzat. Gizonak emakumearen gainean ezartzen zuten zapalkuntza agerian

jarri eta tabuak ziren gai asko plazaratu egin ziren. Urte horiek esanguratsuak izan ziren, talde zanpatu gisa kontzientzia sortzeko eta emakumearen autoafirmaziorako”.

Estatu mailako emakumeari buruzko II. jardunaldiak Granadan egin ziren 1979. urtean. Feminismoarentzat eta antolatzaileentzat mugarri bilakatuko zen topagune horretan, 3000 emakumek parte hartu zuten. Granadan eragin handia izan zuten eta horri esker feministen mugimendua bistara jartzea lortu zuten. Garrantzi handiko eztabaida bat egin zen jardunaldi horietan: ikuspegi dikotomikoz, desberdintasunaren feminismoa eta berdintasunaren aldeko feminismoaren arteko bereizketa egin zen. Mugimendu feminista bitan zatitu zen eta Asanbladaren baitan ere, zatiketa hori gertatu zen. GEAk berdintasunaren aldeko feminismoaren aukera egin zuen, Estatu mailako Koordinadorak egin bezala. Espainiar Estatuan feminista talde independenteak sortuko ziren, topaketa jakin batzuk antolatu zituztenak, 80ko hamarkada erdian desagertu ziren arte.



Granadan bi talde agertu ziren, feminismoaren ikuspegitik erreferentziazkoak: a) independenteak, desberdintasunaren feminismoaren aldekoa eta muturreko jarrera hartuz, funtsezkotzat sexuen arteko desberdintasunari irizten dion taldea; b) berdintasunaren aldeko feminismoaren aldekoak, emakume izate hutsak kategoria aparteko bat ematen ez duela eta gizonekiko dagoen desberdintasun bakarra biologikoa dela uste duen taldea. GEako partaideek baieztatu zutenenez, "berdintasunaren aldeko feminismoak, emakumea jendartean bistaratu izateko moduan jarri du eta emakumearen auzia maila horretan onartua izatea lortu du. Jendarteko espaziotik baztertuta, dagokien lekuan kokatu ditu berriz ere, baina emakumeen arteko aniztasunari eta desberdintasunari dagokionez, ez du gai horietan sakondu.

Granadako jardunaldietan, feminismoa ulertzeko ikuspegi anitz eta desberdinak agerian geratu ziren, baita mugimenduaren autonomia bera ere. Gai batzuen inguruan sortzen zen iritzi aniztasunaren aurrean, emakume izateak, guztien arteko lotura halako bat ezartzen zuen. Mugimendu feministak aurrera eramandako borrokatako bat izan zen abortatzeko eskubidearen aldekoa. 1979an hasi zen borroka hori eta sexualitate askatasunaren aldeko kanpainan sartuta, 80ko hamarkadan zehar luzatu zen. Mugimendu feminista indarra hartuz joan zen eta mobilizazio horien aurrean jendarteak emandako erantzuna garrantzi handiko izan zen. Asanbladak "Malva" argitaratzeari ekin zion, NATO, EEBBetako inperialismoa eta armagintzaren aurkako salaketak plazaratzeko bide bilakatu zena. Garai hartan feminismoari ikuspegi bakezalea gehitu zitzaion, bakearen aldeko mugimenduekin zituen harremanetatik. Asanbladak garrantzi handiko beste kanpaina bat ere burutu zuen, azaldu zuten "helburutzat hartu genuen indarkeria horren oinarrian zegoen arazo soziala azaltzea, emakumeen auto-estimua indartzea eta erakundeei eskatzea, legeak jarri erantzuteko, ez berez irtenbide bat direlako, baizik eta jendartean zabaltzeko halako ekintzak delitu direnaren kontzientzia.

80ko hamarkadan zehar, Asanbladak aztertzen zituen gaien teoria mailako planteamenduak biribiltzen joan ziren: pornografia, sexualitatea, antisorkuntza, abortua, dibortzioa, erasoak, bakezaletasuna... eta era berean, mugimenduaren erakundetzea gertatu zen, 1983. urtean Emakumearen Institutuaren sorrerarekin. Mugimenduan barne eztabaida latzak agertu ziren hori zela eta; GEAKo kideek esan dutenez "esparru instituzionalean biltzearen kontrakoak azaldu ginen, gure diskurtsoari mugak eta baldintzak jarriko zizkiola uste genuelako; gure jarrera, erakundeei laguntza eta azpiegiturak bideratzea eskatzearen aldekoa zen."

90eko hamarkadan zehar agerian jarri zen emakume bezala bizitzeak aditzera ematen duen errealitate zabala eta uniformetasunik gabekoa. Emakumea identitate subjektu askotariko eta anitza bezala kontestualizatu egin zen; subjektu hori ahistorikotzat eta abstraktutzat zuen kategorizazioa alde batera utzi zen. Hamarkada horren hasieran, mugimendu feministaren antolakuntzan haustura gertatu zela ere ageriko zen. 1993an mugimendu feministak Madrilen antolatu zituen jardunaldietan transexualen partaidetza adierazgarria izan zen; beren hitzetan, "generoak ez direla monolitikoak erakutsi ziguten eta azaldu, beraiek nola sentitzen ziren identitate desberdin baten barruan, ordura arte feminismoak aintzat hartu ere egin ez zuena. Proposatu zuten zalantzan jartzeko sexu/genero sistema eta hausnartzeko ondorengo dikotomieei buruz, homo/hetero, gizon/emakume, travesti/transexual... Mugak ez zeuden guk uste bezain argi".

Hortik aurrera, identitatearen auzia, estatikoa ala aldakorra ote den, edo uniformizatzaera egiten duen edo auto-afirmatzeko beharrezkoa ote den, auzi horiek GEAREN bilkuretan geroz eta leku gehiago hartzen doaz. Asanbladak planteatzen du emakumeak artikulatzea, beren desberdintasunen gaineratik, diskurtso bateratu baten inguruan. Jadanik ez dute baliorik kategoriatik analitiko hertsiek eta aniztasuna hartzen da mugimenduaren identitate ikurtzat. Une batean, Asanbladak zalantza egin du lanean jarraitzeari buruz eta bere etorkizunari buruz, baina aurrera egitea erabaki dute helburutzat hartuta elkartasun loturak sortzen jarraitzea, espazio alternatiboak eztabaida egiteko eta identitatea garatzen laguntzeko; egun ere baliagarriak dira premisa horiek. Ondorioztatu dutenez, "Granadako Emakumeen Asanbladan era askotako emakumeak bildu dira. Emakume arteko eta emakume eta gizon arteko erlazioen gaineko bestelako begirada bat eskaintzen ahalegindu gara. Topagune bat izan gara eta izaten jarraitu nahi dugu, zentzua duelako guretzat oraindik orain, salatzea gizonaren aldean azpiratuta uzten gaituen sexu/genero sistema. Mundu bidezkoago bat nahi dugu, etorkizun bat izango duen planeta eta elkarrekin banatzeko beste balio batzuk.